

## Iruñerriko Ibai Parkea

*Iruñerriko Ibai Parkea Arga, Ultzama eta Elortz ibaien ertzean dago. 22 kilometroko korridore berde bat da eta ipar-ekialdetik hego-mendebaldera doa: Sorauren eta Iroztik Zizur Nagusiraino, zehazki. Iruñeko dermio barruan, Argak 11 kilometroko ibilbidea gehitzen dio Parkearen luze-zabalerari, eta emaitza gune zabal ederra da, oinezko eta txirrindularientzako oso aproposa, urari lotutakoa, eta aisiari, kirolari, hezkuntzari eta topaketari eskainia. Hitz batez, ibaiak eta ibaiertzak berriz ere daude Eskualdeko biztanleen eskuetan.*



*Ibai-inguruneak finkatzearekin batera, ibai-ekosistemen babesa sustatu da eta, horren ondorioz, halako jarraitasun bat sortu da landare eta animalia espezieentzako. Aldi berean, elkarren artean lotuta gelditu dira ibaiarekin zerikusia duten arkitektura eta industria arloko baliabideak: zubiak, errotak, pilategiak, zentral elektrikoak, etab.*

*Ibai Parkearen bidez, Iruñerriak aintzat hartu du ibaiei eta ibaiertzei naturaren eta historiaren aldetik darien ondare-izaera ukaezina; lehentasunez, zaindu beharrekoa.*





## Atarrabiako Pilategia, Ibai Parkeko Sentsibilizazio Zentroa

**Ibai Parkeko Informaziorako eta Sentsibilizaziorako Zentroa**
Atarrabiako Pilategian dago eta bisitariei erakusketak, ikus-entzunezkoak, tailerrak eta bisitaldi gidatuak eskaintzen dizkie, eraikinaren eta Iruñerriko Ibai Parkearen historiaren berri emateko.

Pilategia eta ingurunea arkeologia industrialaren adibide interesgarriak dira. Orreagako fraideen jabetzapean, irin-errota izan zen XII. mendetik aurrera. 1544an, eraikinari pila hidrauliko bat eta trapu-errota bat erantsi zitzaizkion. Gero, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, pilategian paper-orea egin zen, trapu erabiliak baliatuta eta, geroago, pinu-egurra erabilita. Garai hartakoak dira presa eta errekan behera kokatuta zegoen paper-lantegiraino ura eramaten zuen ubidea; ubidearen lehen tartea kontserbatu da. Horra hor, lantegiko tximiniarekin batera, iraganaren azken aztarnak.



**Sotoa**

**Pilategiaren historiaren berreraikuntza**
Pilategiko hasierako errota eta mekanismoa berreraikita daude, trapuak jotzeko edo pilatzeko prozesua erakusteko. Urlasterrak mugiarazitako ardatz batek zurezko mazo lodiei eragiten zien, eta mazoek trapuak jo eta jo egiten zituzten, iragazgaitzeko eta gogorrago egiteko.

**Solairu Nagusia**

**Iruñerriko Ibai Parkea**
*Ibaiaren oparia* erakusketak Iruñerriko Ibai Parkea ezagutzeko aukera ematen du hainbat bitarteko erabilita: argibide-taulak, pantailak, bideoak eta maketak, guztiak ere oso aproposak herritarrek parkea era ludikoan ezagut dezaten. Ikus-entzunezkoen Aretoan ematen den proiekzioak, gainera, erakusketaren edukia osatzen du.

**Lehen Solairua**

**Erabilera Anitzeko eta Erakusketa Aretoa**
Ingurumenari begira interesa duten prestakuntza-jarduerak, tailerrak eta aldi baterako erakusketak egiten dira.







## *Ibaiaren Oparia* erakusketa iraunkorra

Erakusketak Iruñerriko Ibai Parkea ezagutzeko aukera ematen digu; hau da, zer ibaik osatzen duten; zer udalerri dauden ibaiertzetan eta zer-nolako apustua egin duten udalerriek ibaiak bere onera ekartzeko. Azken finean, ekologiari, hirigintzari, gizarteari, heziketari eta ingurumenari begira balio asko dituen ibai gunearen iragana, oraina eta etorkizuna ezagutzeko parada da.








**ATARRABIAKO PILATEGIA**
*SOLAIRU NAGUSIA*

***IBAIAREN OPARIA* ERAKUSKETA**

1. Iruñerrirako ibilgu berdea
2. Batzen gaituzten ibaiak
3. Etorkizuneko Ibai Parkea
4. Arkeologia industriala
5. San Andres Errota
6. Guztiontzako jolas eremua
7. Ibai Parkeko ibaiak
8. Iragana ibaiaren inguruan
9. Ibaien kutsadura eta berreskurapena
10. Ibaiaren eta ibaiertzaren animaliak
11. Ibai bazterretako landareak
12. Iruñerrirako parke bat
13. Etorkizunera begira

# Batán de Villava

*Atarrabiako Pilategia*





Centro de Información y Sensibilización del Parque Fluvial
*Ibai Parkeko Informaziorako eta Sentsibilizaziorako Zentroa*





Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea



## El Parque Fluvial de la Comarca

*El Parque Fluvial de la Comarca, en las orillas de los ríos Arga, Ultzama y Elorz, es un corredor verde de 22 kilómetros que se extiende de noreste a suroeste, desde Sorauren e Irotz hasta Zizur Mayor. A su paso por Pamplona, el Arga suma a la extensión del Parque sus 11 km de recorrido sobre el término municipal, creando un amplio espacio accesible para peatones y ciclistas, ligado al agua y destinado al ocio, el deporte, la educación y el encuentro, que devuelve los cursos fluviales y sus riberas a los habitantes de la Comarca.*



*La consolidación del entorno de los ríos ha favorecido la preservación de los ecosistemas fluviales y la continuidad espacial de las especies vegetales y animales. Al tiempo, diseña un itinerario a través del rico patrimonio arquitectónico e industrial vinculado con el río: puentes, molinos, batanes, centrales hidroeléctricas, etc.*

*Con el Parque Fluvial, la Comarca reconoce a los ríos y su entorno su carácter de patrimonio natural e histórico irrenunciable y objeto prioritario de conservación.*





## El Batán de Villava, Centro de Sensibilización del Parque Fluvial







**El Centro de Información y Sensibilización del Parque Fluvial,** en el Batán de Villava, ofrece a los visitantes diferentes recursos expositivos, audiovisuales, talleres y visitas guiadas para conocer la historia del edificio y el Parque Fluvial de la Comarca.

El Batán y su entorno constituyen un interesante ejemplo de arqueología industrial. Propiedad de los monjes de Roncesvalles, fue molino harinero desde el siglo XII. En 1544, se ampliaron las instalaciones con un batán hidráulico o molino trapero. Desde mediados del siglo XIX, el batán se utilizó para la fabricación de pasta de papel a partir de tejidos usados y, más tarde, de madera de pino. De esta época datan la presa y el canal que daba servicio a la fábrica de papel situada aguas abajo y del que se conserva el primer tramo. Junto con la chimenea de la fábrica, son los últimos vestigios del complejo.



### Planta Sótano

**Reconstrucción de la historia del Batán**

La reconstrucción de la rueda y el mecanismo original del batán reproducen el proceso tradicional de abatanado. Gruesos mazos de madera movidos por un eje activado a su vez por la corriente, golpeaban los paños para impermeabilizarlos y hacerlos más resistentes.

### Planta Principal

**El Parque Fluvial de la Comarca**

La exposición *El regalo del río* permite conocer el Parque Fluvial de la Comarca mediante paneles informativos, pantallas, vídeos y maquetas que facilitan un acercamiento comprensivo y lúdico. En la Sala de Audiovisuales, una proyección completa el contenido de la exposición.

### Planta Primera

**Sala de Usos Múltiples y Exposiciones**

Destinada a actividades formativas, talleres y exposiciones temporales de interés ambiental.

## Exposición permanente
## *El Regalo del Río*

La exposición nos brinda la oportunidad de conocer el Parque Fluvial de la Comarca, los ríos que lo forman, los municipios de sus orillas y su apuesta por la recuperación de los cauces fluviales, el pasado, el presente y el futuro de un espacio en el que confluyen valores ecológicos, urbanísticos, sociales, educativos y ambientales.








**BATÁN DE VILLAVA**
*PLANTA PRINCIPAL*

**EXPOSICIÓN *EL REGALO DEL RÍO***

1. Un corredor verde para la Comarca
2. Los ríos que nos unen
3. El futuro Parque Fluvial
4. Arqueología industrial
5. El Molino de San Andrés
6. Un espacio lúdico para todos
7. Los ríos del Parque Fluvial
8. El pasado en torno al río
9. La contaminación de los ríos y su recuperación
10. Los animales del río y la ribera
11. La vegetación de las orillas
12. Un Parque para la Comarca
13. Mirando al futuro

## Cómo llegar /Nola iritsi

Papel reciclado / Paper birziklatua




**Batán de Villava**
***Atarrabiako Pilategia***

c/Mayor, 64
31610 Villava

*Kale Nagusia, 64*
*31610 Atarrabia*

**HORARIO DE VISITAS**

Sábados, domingos y festivos

**Horario de verano:**
(del último domingo de marzo al último sábado de octubre): de 11:30 a 14:00 h. y de 17:00 a 20:00 h.

Visitas guiadas: mañanas 12:00 y 13:00 h. y tardes 18:00 y 19:00 h.

**Horario de invierno:**
(del último domingo de octubre al último sábado de marzo): de 11:30 a 14:00 h.

Visitas guiadas: a las 12,00 y 13,00 h.

Visitas concertadas de grupos de adultos y escolares previa reserva anticipada. Cerrado al público los días 1 de enero, 6 y 7 de julio y 24, 25 y 31 de diciembre.

***BISITA ORDUAK***

*Larunbat, igande eta jaiegunetan*

***Udako ordutegia:***
*(martxoaren azken igandetik urriaren azken larunbatera): 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.*

*Bisita gidatuak: goizean, 12:00etan eta 13:00etan; arratsaldean, 18:00etan eta 19:00etan.*

***Neguko ordutegia:***
*(urriaren azken igandetik martxoaren azken larunbatera): 11:30etik 14:00etara.*

*Bisita gidatuak: 12:00etan eta 13:00etan.*

*Heldu eta ikasle taldeen bisita hitzartuak aurretik erreserbatu behar dira. Jendearentzako itxita: urtarrilaren 1ean, uztailaren 6an eta 7an, eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n.*

**ENTRADA GRATUITA**
***SARRERA DOAN***

**901 502 503**
**www.mcp.es**

FEDER
Gobierno de Navarra
Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea
Parque Fluvial de la Comarca
Iruñerriko Ibai Parkea